



## BIDEAK GARBITZEKO ETA HONDAKINAK BILDU ETA GARRAIATZEKO ZERBITZUA

Bikaintasun maila

Prozedura ireki bidez eta lehiaketagatiko  
esleipen bidez kontratatze ingurumen irizpideak

**OHARRA:** Bideak garbitzeko eta hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzuen kontratazioan ingurumen-irizpideak ezartzen direnean, kontuan izan behar da zer dimentsio duen kontratuak eta zer motatako enpresak aurkeztuko diren lizitaziora, eta ETE-ei parte hartzeko aukera eman behar zaie. Enpresa handi guztiek betetzen dituzte ingurumen-irizpide batzuk, baina enpresa txiki eta ertainentzat zailagoa da haiek betetzea. Ingurumen-irizpideei dagokienez baldintza-orrian egingo den eskakizun-maila zehaztu aurretik hausnarketa bat egitea gomendatzen da:

- Oinarrizko maila: Edozein tamainetako enpresek beren gain erraz har ditzaketen irizpideak dira.
- Maila aurreratua: Enpresa handiek erraz har ditzakete beren gain irizpide hauek; alabaina, enpresa txikientzat maila aurreratuko irizpideak dira.
- Maila bikaina: Irizpideak zorrotzagoak dira, baita enpresa handientzat ere.

## 1. Kontratuaren xedea eta espezifikazioak

### 1.1. Kontratuaren xedea

Atal honetan, garrantzitsua da aipatzea ingurumen-alderdiak kontuan hartuko direla:

#### 1. koadroa

Kontratu honen xedea da gaikako bilketa eta hondakinak garraiatzeko eta bideak garbitzeko zerbitzuak emateko gutxieneko baldintzak zehaztea. Ingurumena eta lan-osasuna gehiago zaintzen dituzten metodo, jardunbide eta produktuekin gauzatuko da zerbitzu hau, eta, besteak beste, hauek hartuko ditu barnean: hondakinen kudeaketa egokia eta ingurumenaren aldetik jasagarriak diren makinaren erabilera.

## 1.2. Hautaketa-irizpideak: gaitasun tekniko eta profesionala

Lizitatuzaileek gutxienez bete behar dituzte baldintza horiek, eta beren proposamena aurkezteko dokumentazioan egiaztatu behar dituzte. Atal honetan, proportzionaltasun printzipioari eusteko, lehiakortasuna ez eragozteko eta ETE-er sarbidea ez saihesteko aintzat hartu behar da kontratuaren tamaina.

Gaitasunen atalean klausula hauek sartzea gomendatzen da:

### 2. koadroa

Enpresa lizitatuzaileek koordinatzaile bat eduki behar dute, lan-osasunari, segurtasun-estandarrei, garbiketa-metodoei eta zerbitzuari lotutako ingurumen-alderdiei buruzko prestakuntza duena.

Pertsona horren CVA erantsi behar da, gaitasun-irizpide hori betetzen dela egiaztatzeko.

### 3. koadroa

Enpresa lizitatuzaileek kontratua gauzatzean ingurumena kudeatzeko jardunbide egokiak sistematikoki aplikatzen dituztela bermatu behar dute (garbiketa-zerbitzuan ingurumen-kudeaketako sistema (IKS) baten bidez ziurtatzeko modukoak; EMAS, ISO 14.001, Ekoscan edo baliokidea), edo alderdi horiek kontuan hartzen dituzten laneko osasuna babesteko eta ingurumena zaintzeko prozedurak eta lanerako jarraibideak izan behar dituzte.

- Atmosferarako emisioak (zaratak, gas poluitzaileak, CO<sub>2</sub>-a, usainak eta abar) murriztea.
- Zerbitzua ematen den bitartean sortutako hondakinen kudeaketa zuzena, batez ere hondakin arriskutsuena eta bereziena.
- Isurketa arriskutsuak minimizatzea.
- Uraren eta energiaren erabilera eraginkorra eta neurritzkoa egitea zerbitzua ematen den bitartean.

Lehenengo kasuan, enpresak IKSaren ziurtagiria erantsi behar du. Bigarren kasuan, aipatutako prozedurak B gutun-azalean erantsi behar ditu eskaintzaileak, bere gaitasuna ebaluatzeko.

### 1.3. Espezifikazio teknikoak

Lizitatuzaileek, aurkezten duten proposamenean, zehaztu behar dute betetzen dituztela baldintza-orrietan agertzen diren agindu teknikoak, kontratazioa bat etor dadin bete nahi diren ingurumen-alderdiekin. Proposamenaren nahitaezko baldintza dira, eta ez baloratu beharrekoak, nahitaez bete beharrekoak baizik.

Hona hemen proposatutako irizpideak:

#### 1.3.1. Ibilgailuak

##### 4. koadroa

###### Hondakinak biltzeko ibilgailuak

Hondakin-fluxu handietarako (bilketa gordina eta ontziak, adibidez), trinkotze-sistemak izan behar dituzte hondakinak biltzeko ibilgailuek.

##### 5. koadroa

###### Olio lubrifikatzaileak

Ibilgailuaren mantentze-lanetan, biskositate gutxiko olio lubrifikatzaileak edo olio lubrifikatzaile birsortuak —birsortutako olio-oinarriak gutxienez % 25 izan behar du— erabili behar dituzte motorretarako.

##### 6. koadroa

###### Emisio akustikoak

Zerbitzuko eragiketak egiteari lotutako zarata minimizatzea bermatu behar dute ibilgailuek (kamioi- eta edukiontzi-kolpeak moteltzeko mekanismoak, zarata isolatzen panelak makinetan...).

#### 1.3.2. Garbiketa-produktuak

##### 7. koadroa

###### Produktu-zerrenda

Lizitatuzaileak zerbitzua emateko erabil ditzakeen produktu guztien zerrenda aurkeztu behar du, eta produktu bakoitzaren egitekoa edo aplikatzeko gainazala, erabiltzeko dosifikazioa eta segurtasun-fitxa adierazi behar ditu.

## 8. koadroa

### Beste produktu batzuk

Usainak eta orbanak deuseztatzeko erabiltzen diren garbiketa-produktuek I motako ekoetiketaren batean (hala nola Beltxarga Zuria, Europako Etiketa Ekologikoa edo baliokideren bat) jasotako baldintzak bete behar dituzte, produktuaren formulazioan konposatu kimikoak egoteari dagokionez.

## 9. koadroa

### Ontziak

Garbitasuneko produktuen ontziak behar bezala etiketatuta egongo dira.

Ontziek dosifikazioko gailu zehatzak eduki behar dituzte, kasu bakoitzeko beharren arabera.

Edukiera handiko ontziak izango dira edo produktu kontzentratuak erabiliko dira.

### 1.3.3. Uraren kudeaketa

## 10. koadroa

### Ura aurrezteko sistemak

Enpresa lizitatzailleak ura aurrezteko sistemak izan behar ditu instalazioetan.

Bideak garbitzeko zerbitzurako ura aurrezteko sistemak eduki behar dira, batez ere galtzadak urez garbitzeko eta presiopeko ureztatze-lanetarako.

## 11. koadroa

### Uraren jatorria

Bideak garbitzeko zerbitzurako, lizitatzailleak, ahal den guztietan, baliabide alternatiboetako ura eta edateko egokia ez dena erabiliko du, eta zisterna guztiak halako urez kargatuta aterako dira dagokien parketik.

## 12. koadroa

### Uraren kudeaketa

Erabiltzen duen ura behar bezala kudeatzeko konpromisoa hartu behar du esleipendunak, eta horretarako, likidoak dituzten hondakinen kontaktua murrizteko neurriak hartuko ditu (euri-urak barne), ubide naturaletara isurketarik ez egiten

ahaleginduko da eta, ahal den guztietan, ureztatzeko berrerabiliko du. Horretarako berriazko neurriak zein diren zehaztu behar da.

#### 1.3.4. Zerbitzuaren kudeaketa eraginkorra

##### 13. koadroa

###### **Kudeaketa-plataforma integrala**

Plataforma integral bat erabiliko da eskainitako zerbitzuak kudeatzeko eta kontrolatzeko eta trazabilitatea bermatzeko. Ezinbestekoa da denbora errealeko sistema bat izatea, tokiko erakundearen eta kontratistaren arteko komunikazioa bizkortzen duena.

Tokiko erakundeak gainbegiratu du plataforma informatikoa eta han ostatatuko da, edo, bestela, segurtasun-, zerbitzu- eta ziurtagiri-araudi zorrotzenak betetzen dituen datuak prozesatzeko zentro batean.

Identifikazio-sistema bat eta lokalizazio-sistema bat duen sistema integratu bat instalatuko da ibilgailu bakoitzean.

Denbora errealean lortutako datuak software-tresna espezializatuen bidez prozesatuko dira. Alderdi hauek bermatu behar dituzte tresnok:

- GIS sistemetan oinarritutako elementuen inbentario bat egitea.
- Behar diren zerbitzuak, aldizkakotasuna, giza baliabideak eta baliabide materialak planifikatzea.
- Zerbitzuen gauzatzea kontrolatzea.

Herritarrekin komunikatzeko bide bat ezartzea, iradokizunak, gertaerak eta abar jasotzeko.

#### 1.3.5. HONDAKINAK BILTZEKO ETA GARRAIATZEKO irizpide espezifikoak

##### 14. koadroa

###### **Ibilbideen plangintza**

Baldintza-orrietan jasotzen diren baldintzak betetzeko egokien jotzen dituen ibilbideak erabaki, proposatu eta eguneratu behar ditu enpresa esleipendunak. Ibilbide bakoitzarekin hari dagokion kilometro-kopurua adierazi behar da.

Zerbitzua optimizatzeko egokitzat jotzen dituen hobekuntzak proposatu behar ditu enpresa esleipendunak, hala nola edukiontzi berriak jartzea, lehendik daudenak lekuz aldatzea, bilketa-maiztasunak aldatzea, ordutegiak aldatzea eta abar.

### 1.3.6. BIDEAK GARBITZEKO irizpide espezifikoak

#### 15. koadroa

##### **Garbiketa-plana**

Enpresa esleipendunak bideak garbitzeko plan bat aurkeztu behar du, eta alderdi hauek zehaztu behar ditu:

- Makinen ibilbideak, haien urteko kilometro-kopurua murrizteko.
- Auzo/Gune bakoitzaren garbiketa-beharretarako egokitzapena, erabileren eta urteko garaien arabera.

Garbiketa-plan horretan, proposatutako zer jarduerarekin lor daitezkeen ingurumen-hobekuntza bat justifikatu behar da.

#### 16. koadroa

##### **Hondakinak kudeatzeko plana**

Kontratuan sartutako zerbitzu bakoitzak eragindako hondakinak behar bezala kudeatu behar ditu esleipendunak. Kudeaketa horretan puntu hauek sartuko dira:

- Erraztutako produktuak, azoketako eta ferietako produktuak eta abar biltzea edukiontzien bidez.
- Hobien garbiketarik eratorritako produktuak, hildako animaliak eta abar jasotzea.
- Zerbitzua gauzatzean bildu daitezkeen gai bereziak eta arriskutsuak tratatzea.

#### 17. koadroa

##### **Zabor-poltsak**

Zakarrontzi bidez hondakinak bereiz daitezkeen udalerrietan, hainbat koloretako poltsak erabiliko dira hondakin bakoitzerako (papera, urdina; ontziak, horia; beira, berdea; gainerakoak, beltza).

Poltsak I motako ekoetiketaren bateko baldintzak bete behar dituzte, produktuaren formulazioko konposatu kimikoei dagokienez (Aingeru Urdina edo baliokidea izan daiteke).

## 18. koadroa

### Erraztatze-lanak

Eskuz erraztatze lanetan, hondakinak biltzeko orgak prestatuta egon behar du zaborra gaika jasotzeko, bereiz biltzeko gutxienez papera, beira, ontziak eta errefusa.

## 19. koadroa

### Garbiketa-teknikak

- Kartelak eta pankartak kentzea. Itsatsita baldin badaude, ahal bada hidropresio-makina batez kenduko eta garbituko dira, eta edateko bihurtu ez den ur hotza botako du makinak harea-zorrotadaz.

Euskarriak horretarako aukera ematen duenean edo kartela paramentura oso itsatsita dagoenean, erraketa edo espatula bidez bereiziko dira. Edonola ere, ez dira erabiliko alanbrezko eskuilak edo paramentua urratzen edo hondatzen duten bestelako elementuak.

- Pintadak eta graffitiak garbitzea. Harea gehigarriekin —sodio bikarbonatoa, adibidez— jaurtitzeko sistema erregulagarri bat duten mekanismoak erabiliko dira presio baxuan.
- Belarrak kentzea. Lehentasuna emango zaio belarrak bitarteko mekanikoen bidez kentzeari, eta nahikoa ez bada, landareak suntsituko dituen disoluzio ez-oldarkor batez fumigatzeari; ozpina eta uraren nahasketa bat izan daiteke edo gatz-disoluzio bat (dosi txikia). Herbizidak salbuespen hauetan bakarrik erabiliko dira: tokiko landaredia arriskuan jar dezaketen izurrite edo espezie inbaditzaile gisa sailkatutako kasuetan. Esleipendunak lan horiek egiteko behar dituen baliabideak eduki behar ditu. Horretarako, 2012ko irailaren 14ko 1311/2012 Errege Dekretuan ezarritakoa bete behar da, zeinak produktu fitosanitarioak modu jasangarrian erabiltzeko jarduera-esparrua ezartzen baitu. Esleipendunaren ardura da Errege Dekretu hori betetzeko egin beharreko lan guztiak egitea.

Inola ere ez da erabiliko belarrak kentzeko sua baliatzen duen metodo oldarkorrik.

## 2. Gauzatze-irizpideak

### 20. koadroa

- Kontrola eta jarraipena. Lanak egiten diren bitartean, enpresa esleipendunak kontrol- eta jarraipen-lanak egin behar ditu ziurtatzeko ingurumen-aldagaia eta lana behar bezala garatzen ari direla.
- Txostenak. Hilero txostenak bidali behar zaizkio kontratuaren udal-arduradunari, lana justifikatzeko. Aldagai batzuk adierazi behar dira txostenean; esaterako, uraren benetako kontsumoaren neurketa eta erregaiak. Horrez gain, urtero beste txosten bat egingo da hilero neurtutako aldagaien kontsumoak murrizteko proposamenekin.
- Erregaiak. Enpresak erregai edo sistema alternatibo bidez (bioerregaiak, hidrogenoa...) higiaraz daitezkeen ibilgailuak baldin baditu, sistema alternatibo horiek ahalik eta gehiena erabiliko ditu. Udalerriko arduradunari jakinarazi behar zaio makina edo ibilgailu horien erabileraren ehunekoak.
- Langileek trebatuak egon behar dute zerbitzua ematen duten bitartean behar bezala jarduteko; adibidez, ahalik eta zarata gutxien egiteko eta eraginkortasunez gidatzeko. Horretarako, dagokion trebakuntza jaso izanaren egiaztatiriak aurkeztu behar dira.
- [Hondakinak biltzeko eta garraiatzeko zerbitzurako] Edukiontzia garbitzean, ziurtatu behar da ura behar bezala kudeatzen dela eta produktu kimikoak modu egokian erabiltzen direla.

## 3. Esleipen-irizpideak

Esleipen-irizpideetan, zehatz-mehatz adierazi behar da irizpide bakoitza eta nola ezarriko den balorazioa (puntu zehatzak) esleipenerako aurreikusitako puntu guztien barruan. Garrantzitsua da ingurumen-irizpide horien eta kontratua esleitzeko gainerako irizpideen arteko orekari eustea. Esate baterako:

### 20. koadroa

- Erregai alternatiboak erabiltzen dituzten ibilgailuak erabiltzen dira (elektrikoak, hibridoak, GNL, etab. ) (2 puntu): Erregai alternatiboak erabiltzen dituzten ibilgailuen ehunekoak baloratuko da.

Formula:

$$BEP = \frac{BE \times 2}{EO}$$

Hizkiek hau adierazten dute:

EO: eskaintza onena.

BE: baloratu nahi den eskaintza.

BEP: baloratutako eskaintzari ematen zaion puntuazioa.

- Ibilgailuen emisioak (2 puntu): Zerbitzuak emateko flotako ibilgailuetatik zenbatek (ehunekoa) betetzen duten EURO VI araua baloratuko da.

Formula:

$$BEP = \frac{BE \times 2}{EO}$$

Hizkiek hau adierazten dute:

EO: eskaintza onena.

BE: baloratu nahi den eskaintza.

BEP: baloratutako eskaintzari ematen zaion puntuazioa.

- Uraren jatorria (1 puntu): Baloratuko da esleipendunak euri-urak berreskuratzeko instalazioak eduki edo gauzatzea bermatzea, ur hori gero edukiontzia eta makinak garbitzeko erabiltzeko.

- Edukiontzia (0,5 puntu): Baloratuko da material birziklatuen zer ehuneko duten edukiontzien.

Formula:

$$BEP = \frac{BE \times 0,5}{EO}$$

Hizkiek hau adierazten dute:

EO: eskaintza onena.

BE: baloratu nahi den eskaintza.

BEP: baloratutako eskaintzari ematen zaion puntuazioa.

- Edukiontzia (0,5 puntu): Baloratuko da ISO 14006 arauaren edo baliokide baten arabera ekodiseinatuta egotea.

0,5 puntu lortuko dituzte eskaintzako edukiontzi guztiek baldintza hori betetzen dutela egiaztatzen duten lizitatuak.

- Herritarrak sentsibilizatzeko mugikorrek aplikazio (2 puntu): Baloratuko da aplikazio mugikor bat garatzea, haren bidez herritarrek jakin dezaten hondakinak —papera eta kartoia, plastikozko ontziak, beirazko eta metalezko ontziak— birziklatuz zenbat CO<sub>2</sub>-emisio igortzeari uzten diogun.

Mugikorreko aplikazioaren deskribapen tekniko bat sartu behar dute lizitatuzaileek proposamenean. Aplikazio horren erabilgarritasuna, erraztasuna eta sentsibilizatzeko gaitasuna baloratuko dira.

## 4. Aurkeztu beharreko dokumentazioa

### 21. koadroa

Eskaintzaileak agiri hauek aurkeztu behar ditu, honela:

- a) Zerbitzuaren zereginak eta gauzatzea **azaltzen duen memoria**.
- b) **Berariazko baldintzen fitxa**, <sup>1</sup>behar bezala beteta, sinatuta eta zigilatuta. Horrekin batera, nahitaezko irizpideak eta irizpide baloragarriak (eskaintzaileak hartutako konpromisoak) bermatzen dituzten **egiaztagiri guztiak** aurkeztu behar dira.

Eskaintza egiten duenaren ardura izango dira baldintza-agiri honetan definitutako estandarren eta bestelako egiaztagirien arteko baliokidetasuna frogatzea. Horretarako, baliokidetasun hori modu argian frogatzen duten azterketa teknikoak aurkeztu behar ditu.

<sup>1</sup> Ikusi kapitulu honetako "Hornitzaileentzako egiaztapen-zerrenda" (Hemen eskuratu daiteke: <http://www.ihobe.eus/>, Jarduera-eremuak> Erosketa publiko berdea).